



adats ilea, txima, ile zapa	«Kanarietako hondartza batean ikusi nuela adats eder bat laztantzen, eta niri gehiago gezurrik ez didala esango.»
alajainena bene-benetan, alajainko, alafede	«Ez zait erraza gertatu, ez alajainena . Atzera egun haiek ez nituzke gogora ekarri nahi, baina momentu honetan ezinbestekoa da.»
arakatu miatu, ikuskatu	«...leihu guztiak banan-banan arakatuz . Nireraino iristen denerako gortina atzean ezkututzeen naiz.»
aresti oraintsu, orain dela gutxi	«Hanketan zeukan motxila ikusita, garbi zegoen arestian joandako trenetik jaitsia zela.»
asetu bete, nahikoa egin	«—Nire amoranteek dituztenekin nahikoa asetuta negok.»
atzera berriro, ostera	« Atzera kontu berdinekin dator hau, esango duzue, ez? Harritu egingo zaituzte kontatzera noanak.»
aztoratu asaldatu, larritu, urduritu	«Seguru nago, egun hartan lo ere aztoratuta egingo zuela sekulako konkista bat lortu zuelako erabat puztuta. Gizarajoa...»
baldar arlotea, traketsa, dorpea	«Askoz ere baldarragoa zen, handiagoa eta ilea horiz pintatuta zeraman gainera. Nire neskak ez luke sekula horrelakorik egingo bere adats beltzarekin.»
bertan behera utzi baztertu, dagoen bezala utzi	«Ordurarte entzundakoak etorkizunerako asmoak, eta enpresariak bertan behera utzi zituen abokatu ezagunarekin ezkontzeko planak...»
bestelakoa desberdina, apartekoa	«Problema oso bestelakoa zen: sekula ez zen ausartzen bere telefonobioak ezagutzera.»
beta astia, aukera	«Saunatik manikurara eta handik pelukeriara, ez zuen beste ezertarako betarik .»
biraoa madarikazioka	«Sekulakoak eta bi bota zizkion, biraoa azaldu zen eta biraoa desagertu...»
bizipoza bizitzeko gogoa	« Bizipoza galdua sentitzen zuen. Handik aurrera ezerk ez zuen zentzurik izango, ezer ez zen garrantzitsua izango.»
buruaz beste egin burua hil, suizidatu	«Gau batean, erietzeko terrazatik bere buruaz beste egin zuen salto batez.»
diat / dinat (hika) <i>dut</i> edo <i>dizut</i>	«Ezer baino lehen gauza bat esan nahi dinat , bota ez zidan ba lelo hark festa hasteke zegoenean?»
dik (hika) <i>du</i> edo <i>dizu</i>	«Baietz gizona, hire antza eta guzti dik , ea lasaitzen ote zen koitadua.»
erretxin ipurterrea, egonezina	«Ez zarete alferrik bizkiak! Batzuetan, bata zuri, bestea beltz izaten omen dira, baina zuek ondo berdinak atera zarete, erretxin hutsak.»
errukarri penagarria, tamalgarria	«Mundua bueltaka hasi zitzaion inguruan, haurtzaro errukarria , gaztaro motza eta zahartzaro bakartia, segundotan pasa ziren bere begi aurretik...»
esperoan haurdun	«Urtebete beranduago esperoan nintzen berriro ere —bestela ez zait denon historia sartuko eta!—»
etekin irabaziak, mozkinak	«Makina bat lan eman diote azken urteotan egin dituzten aldaketekin!»
gainontzeko gainerakoak, ostantzekoak	«Kontxi, (...) gu baino urtebete lehenago erretzen hasi zelako, gainontzeko neskak baino gehiago zela pentsatzen zuten horietakoa.»
goiztiar goizekoa, sasoz kanpokoa	«...inolako ardurarik gabe, "eguzki goiztiarrak " dastatzen ari zirenen zortiaz ari zen.»
gordeko ahal dit ojala	«Jainkoak gordeko ahal dit zentzua gainontzekoa geratzen zaidan bitartean!»
gorria elgorria	«Munduratzeara erabaki zutenetik, bederatzi hilabetetako gorabeheretatik pasa eta azkenekoak, gorria eta anginak izan zituenekoak ere bai.»



hasteke hasi gabe, hasi barik	«Ezer baino lehen gauza bat esan nahi dinat, bota ez zidan ba lelo hark festa hasteke zegoenean?»
hinki-hanka zalantza, duda-mudan	«Nazkatu samarra zegoela pañuelo hartaz eta... eta beste ezer behar bazuen hinki-hankarik gabe eskatzeko, horretarako zirela lagunak eta!»
ihardetsi erantzun, arrapostu	«Zur eta lur geratu zen laguna., kajoiek, bizitzak eta medikuen axolagabekeriak zerikusirik ba ote duten ikertu nahian, baina automatikoki ihardetsi zion...»
irrika nahia, gogoa, guraria	«Zereginik ez zegoela eta baietz, ea ba nolakoa zen umetxo zoragarri hura, ezagutzeko irrikaz nengoela eta.»
iseka burla, trufa	«Txikitan beldurtu egiten gintuen hitz arraroak esaten zituelako, eta iseka egiten genion kalean topatuz gero.»
jabetu konturatu	«Baten lana, behin, birritan irakurri ondoren, zati bat kendu diozula jabetzen zara, zure egin duzula sekretu hau edo hura deskubrituz.»
jostun joskilea, josten duena	« Jostun bat ezagutu zuen bigarren saiakeran, zintzoa bera...»
kaskarin txoriburua, ergela	«Beno, dena kontatu ziola nire lan-kideak, poeta kaskarinari istorioa gustatu eta elkar ikusten hasi...»
koska zilbota, tripa	«Ni inpresionatzeko edo oso bereziak zituen soinean, baina gomak gehiegi estutzen zion gerri pareta eta gainaldeko koskak nabarmendu.»
kozkortu hazi, handitu	«Lan ederrak hartu nituen kozkortu arte hilean behin tindatu behar hartan.»
lerdea zeriola adurra jausten zitzaiola	« Lerdea zeriola begiratzen zien bieci, eta tarteka niri, baina non eta zertarako zegoen erabat ahaztuta.»
magal altzoa, babesa	«Gogortzen hasia nengoen dirudienez, eta ez nion barkatzeko asmorik. Bidali egin nuen beste baten magala aurki zezala esanaz.»
maltzur bihurria, azeria	«Kristok berak keinu maltzur bat egin ziola kontatuko zukeen lagun artean. Gelako atea itxi aurretik horixe ikusi baitzuen.»
marru oihua, garrasia	«Izan ere, telefono berria jartzera joan zirenean marru batean hasi omen zen berea ez ziotela kenduko oihukatuz.»
mikatz mingotsa, garratza	«...eta kafea hartzen jarraitu zuten, zigarroei ere, urteekin pasa eta zapore mikatz jartzen zaiela jabetu ere egin gabe.»
motz laburra, murrizta	«Eta aurretik zuen lagunarte motza laburtuz joan zitzaion horoskopoparenganako zaletasuna sortu zitzaionetik.»
neronek neuk, nihausk	«Tira, egun batean ez, baina bost hilabete pasa ondoren susmo txarra hartu nion neronek istorio hari eta goiz batean, eskola hartara Joan nintzen.»
nonbait dirudienez, antza denez	« Nonbait , ni bere alde edukitzea egunen batean akaso komenigarri izango zitzaiolakoan edo, nire proposamena onartu egin zuen.»
oniritzi onespena, baimena	«Beldur nintzen lagunaren maitaleak saltsa horretan zer demontretarako sartu behar zuen erantzungo ote zuen, baina nire harridurarako oniritzia agertu
orin orezta, mantxa	«Duela hilabete batzuk ez nuen ezagutuko kakan ikusita, baina, katalejuak ditudanetik, masailean duen orina ere gertutik ezagutzen diot.»
oso-oso sano, burutik ondo	«Pilar, noski, harrituta eta pixka bat penatuta ere bai laguna izandakoa oso-oso ez zegoela ikusitakoan.»
papo kito, bukatu da	«...eta Maitek, emazteak, bultza eta papo .»
patrika sakela, poltsikoa	«...baina ikusi nahi banituen, alabaren bi, beti patrikan eraman ohi zituela erantzun zidan serio-serio.»
petral lotsagabea, bihurria	«...ile-horia atera zen, destinoak egiten dituen joko petral horietakoren baten ondorioz...»



ponpox

apaindua, dotorea, galanta

«Utzidazue beraz, beste behingoz esaten, nola bukatu zituen bere egunak, nire lagunik eder eta **ponpoxenak**.»

tronpatu

erratu, huts egin

«...izenik gabeko maitalea berriro **tronpatuko** zelakoan etxeratu zen.»

tupustean

bat-batean, ustekabean

«**Tupustean** harrapatu zuen eskaerak, sekula ez baitzuen bere lagun mina ezpainetatik kea zeriola ikusi.»

txintik egin

ezer egin gabe

«Maixabel atera zen lehendabizi, **txintik ere egin** gabe, eta Joxe Manuel atzetik.»

txirrista

irristaleku, tobogan

«Bestean **txirrista** batetik botatzeko zorian zegoen kuleroak aldean zituela, baina han ere niri so.»

txunditu

harritu

«**Txundituta** geratu zen noski eta hasieran, ez zuen telefonorik jarri, Horrek ere baditu bere desbentajak.»

zapuztu

alperrik galdu, okertu

«Erromantzea neure buruan zegoen bitartean izan zen zoragarri, egia bihurtzen hasi zen momentutik **zapuztu** besterik ez baitzen egin.»

zerorri

zeu

«Inozenteena **zerorri** izan zarelako seguruena. Zuretzat ez zegoen ezer arrarorik.»

zotinka

hasperenka, negar-zotinka

«Noski, negarrez. Buelta hartu, oraindik **zotinka**, eta etzerantz abiatzeko asmoa zuen, gogo handiegirik gabe.»

zur eta lur

harrituta, zurtu, harri eta zur

«**Zur eta lur** geratu zen laguna., kajoiek, bizitzak eta medikuen axolagabe-keriak zerikusirik ba ote duten ikertu nahian, baina automatikoki